

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. H. Fernández - J. Alaña 27. IRUJ

4. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1986 Ekaina

ARRANTZALEOK! PAUSO BAT EZ ATZERA!

Pertsona guztiek baldin badute lanerako eskubidea, Hondarribiko arrantzaleei ezin izango zaie ukatu jatorrizko eskubide hori. Baina paper eta agirietan onartzen dena, ez da egunoroko praktikan onartzen gure kasuan.

Hondarribiko arrantzaleok eskatzen duguna, eta esijitzen, ez da mesede bat, ez da fabore bat, eskubide bat baizik, belaunaldi belaunaldi, eta gizaldiz gizaldiz, gurasoengandik datorkigun arrantzarako eskubidea.

Hondarribiko arrantzaleok, langileak gara, eta lana egin behar dugu, biziko bagara eta gure etxetara ogia ekarriko badugu. Lana egiteko, ordea, itsasoa behar dugu, **gure itsasoa**, ez besterena, **gure urak**, ez besterenak. **Eskote** gurea zen eta gurea da. Gure bizi guztiko urak, gureak ziren, eta gureak dira. **Ez gureak bakarrik**, baina gureak ere bai.

Zaindu egiten dugu guk itsasoa

Ez daitezela etorri orain, patrullera, kañoi eta ametraladoraz, guk orain arte babestu eta zaindu ditugun kaletatik bidaltzera. Urteetan zehar, geure begi ninia bezala gorde ditugun kalak, beita eta elikadura egokienekin, ezin ditugu gauekik goizera utzi, eta ez ditugu utziko.

Gure arrantza nolakoa den ere ez dakiten politiko batzuen eskuetan ikustea gure arazoa, bildurgarria da **Rennes-en**



ikusit genuen bezala, gure itsasontzi artesanalei **bukeak** deitzen ziela... Eta jueza, guretzako hainbeste garrantzia zuen egun hartan, gure ontzitxoak arrantzako barku ikaragarriak zirelakoan!

Konforme gara itsasoa errespetoa eta lege zorrotzak behar direla. Konforme gara zaindu egin behar direla herri bakoitzaren eskubideak. Konforme gara nazioartean arauak eta normatibak egin behar direla. Konforme gara legezko araudi eta legeak betetzeko.

Ez gaude conforme


Baina ez gaude conforme itsasoa egin duen partiketat. Ez gaude conforme geure uretatik kanpora botatzeaz. Ez gaude conforme geuk zaindutako kaletatik bidaltzeaz. Ez gaude conforme arrainak ez dagoen uretara baztertzeaz.

Legatzetan bakarrik ez gabiltza oztopoz beterik, antxuetan ere udaberri beltza ari gara sufitzen. Hemen ere lege desberdinez jokaten dugu batzuk eta besteok. Batzuentzat ez dago mugarik eta araurik. Sare kaltegarriak ari dira endaiarrak eta donibanetarrak itsasoa murrizten. Hemen bildu ginen kostako ontzi guztiak, haserri eta amorratuak, gure protestak latzena adieraztera. Baina umezurtz jarraitzen dugu.

Barra itsi... hau bakarrik al da guk egin dezakeguna?

Terranoba, Kanada, Ingalaterra, Frantzia eta kosta guztiak korritu zituzten gure birraitonen birraitonak, eta guk hemen egon behar al dugu, gure etxean kateaturik, itsasora irten ezin edo irtekeko gogorik gabe? Ez al dugu guk lanerako eskubiderik? **BADUGU, BAI, ETA HORIXE ESIJITZEN DUGU!**

Jakin bezate Parisen, Luxenburgon, Rennesen eta Bruselasetan ez dugula etsiko Hondarribiko arrantzaleak.



Zuzenketa

Aurreko alean erru bat izan genuen, eta konpontzera nator. Gauden egoera gogorra dela, esaten nuen, eta gogorragoa izango dela oraindik. Hori esanda, esnari buruz eta haragiri buruz dela gogorra, esan nahi nuen.

Izan ere, gure baserritako esnea eta haragia merkatuan saltzea, gero eta zailagoa egingo zaigu. Merkado Komuna dela eta, Espahiako gobernua egin zuen akordioa baino esne eta haragi gehiago ari dira sartzen, eta kanpotik datorren guztia, gure kalterako da, gure produktak baino kanpokoak merkeagoak direlako.

Horregatik esaten nuen, hemendik aurrera egingo diren manifestazio eta halakoetan parte hartzea oso garrantzitsua izango dela, bestela gaizki aurkituko baitgara berehala.

Hondarribiko errota

Hondarribian bost errota izan ziren aintzina. Zuetako askok bostak ezagutuko zenuenit. Nik, berriz, bi bakarrik, baina nahikoa zer zerbitzu egiten zuten jakiteko.

Ez dakitenentzat hemen aipatuko ditut zein ziren bost errota horiek.

— **Artzuko errota.** Artzu baserriko behaldeko errekan dagoen merenderuari Artzuko errota deitzen diote askok, baina errota ez zegoen hura, 100en bat metro atzerago baizik, erdi gordeta. Hantxe zegoen garai batetan errota hura.

— **Ordanegiko errota.** Gaur egun, Urdanibiko errota erabat konpondua eta oso ezaguna, baina ez da errota lanik egiten hor.

— **Behekoerrota.** Izen bereko erretegi eta sagardotegi bihurtu zen errota hori. Lehenago artoa, garia eta irina baziren nagusi, gaur janari eta edaria dira.

Etxe dotore eta apaina, janleku ederra antzinako Behekoerrota.

— **Erdiko-errota.** Behekoerrota baino goraxeago, errekan gora eginez aurkitzen dira errota honen orma zahar eroriak. Dena zakarrez beteaz aurkitzen da errota zegoen lekua.

— **Goikoerrota.** Errota hau ere beste bien erreka berak eragina izan zen. Hirurak zeuden bata bestearen segidan, errekatxo bereko ur garbiek hirurak mugitzen zituztela, lerro berean gutoi behera. Baina **Goikoerrota** Arkoll auzoan dago, **Erdikoerrota** eta **Behekoerrota**, berriz, Jaizubiako auzoan. Horregatik izen horiek, **goiko**, **erdiko** eta **beheko**.

Goikoerrota hor dago oraindik, nahiko zutik, eta laister ankar gora erortzeko arrikuana.

Goikoerrota Udalarena da, eta horretaz nahi nuen zerbaite esan. **Goikoerro-**

tak harri guztiak hortxe ditu oraindik, eta ona izango litzateke Udalak errota hau konponduko balu. Alde batetik Hondarribian geratzen den errota bakarra delako, eta, bestetik, nekazaritzaren probetxurako.

Agian, bateren batek pentsatuko du: "zertarako konpondu?, jendeak ikusteko?" Nik ez dut uste horretarako bakarrik erabili behar denik errota hori, baizik baserritarrek artoa ihotzeko. Artoirina taloak egiteko?, bai, baina oiloei eta behiei emateko, batez ere, orain beste lekutara eraman behar baidute artoa ihotzeko.

Udalak, berea duenez, konpondu eta martxan jarri behar luke, herri guztia izentzat ere oso interesgarria delako dagoen errota bakarra gordetzea, gazte eta haur askok ez baidute jakingo, bestela, zer eta nolakoak ziren gure antzinako errotrak.

Ximón

Bainan nere ustez, aldizkari hau Hondarribiko elkarte eta taldeen asmoak gehiago adierazteko bidea izan beharko litzateke ere.

Alemaniatik besarkada haundi batetkin,

Tomás Elgorriaga Kunze

Teodoro Hernandorenari

Zizurkilen jaio eta munduari itzulia eman ondoren, Hondarribian bizi zaigu. Itxuraz txikia, baina eginez haundia. Horrela ulertu dute dudarik gabe Oñartzuarak, eta eskaini diote ondo merezi zuten omenaldia. Bera izanez euskararen alde

borrokatu duena, ezin aurkitu modu berrik egon honetarako, gaur egun ditugun zortzi bertsolari hoberenak Madalensoro pilotalekua bertsozalek eta gure Teodoro haundiaren ondoan egon nahi zuten jendez beterik.

Opari ugari eskaini dizkiote, hair egun berezia ez ahasztutzeko.

Agur bero bat, Teodoro jauna, agur bero bat baita ere zure emazte kuttur Mercedeseri, bere lan xil eta sakonagaitik iritsi bai zara gaurkora hain argitsu.

Ez dut sekulan ahasztuko zuten etxean aurkitu nuela nere nortasuna eta sendotu nere abertzaletasuna.

Maria Jesus Berroteran

ESKUTITZAK

Alemaniatik herritar batek

Orain dela egun batzuk nere amak "HONDARRIBIA" aldizkariaren 2. alea bidali dit, eta harritua gelditu naiz ze ongi egin dagoen ikustean. Gainera herritik kanpon gaudenoi berrri bali bat ematen dizkigu.

Nahiz eta urrun egon beharrian ere, herriarekiko kontaktoa mantentzen laguntzen digu eta.

ARRAUNLARI

Jatetxea

Butron Ibilbidea Tel. 641581
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Butron Ibilbidean
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA

GARINS

Erlojutegi-Bitxitegi

Zuloaga 16ean Tel. 643308
HONDARRIBIA

ARRATIBEL
OKINDEGIA

Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

Y BUC
Argazkigintza

Zuloaga kalean, 18 Tel. 641972
HONDARRIBIA

HERRI GIROA

★ Butron pasealekua behekatzen ari da, erortzen, piskanaka piskanaka. Bere garaian ez zelako behar bezala egin, orain hor dago, pena ematen duela. Hainbeste diru gastatu, eta hala nola dagoen! Orain beste horrenbeste diru behar konponitzeko.

Esaten dutenez, ehunen bat kotxerentzat lurpeko garaieak eginez, konponduko omen dute pasealeku hori.

★ Ostatu eta tabernak ere badira herriaren komentario ugariaren iturri. Azkenaldiko honetan, **Azken-Portu**, **Lagunak**, eta **Naien-Naien**, itxiak egon dira, Udalak zigortuak, gauean atea isteko ordura errespetatu ez dutelako.



★ Badirudi lapurren kontu hau ez dugula inoiz bukatuko, hileoro badira eta, berri txarrak. Araingo honetan, kotxeak izan dira, batez ere, lapurrentzako tentaziorik haundienak. Udaltzainek P.R. gaztea atxilotu zuten eta juezaren aurrera eramanez ere bai.

★ Maiatzaren 4an, Getariako musika bandak kontzertua eman zuten Gipuzko enparantzan. Entzule asko bildu zen getariar mariñelen banda entzuterako.

★ Maiatzaren 8an, berriz, Elorrio, Bilbo, Sondika eta Ondarruko haurren koroak etorri ziren, berrehunen bat haur, eta Portuko elizan kantatu zuten. Entzule aldetik, banakatzeko batzuk bakarrik agertu ziren.

★ Santa Engraziako jaiak purrut egin dute aurtan. Baziren urte batzuek ospatzen ari zirela, eta alaitsu eta zaratatsu, gainera. Feste ederrak izaten ziren, tiobibo eta guzti. Bertsolari, dantza, taberna, haurrentzako jolas, laisterketa, etabar, etabar. Aurtan, ordea, gogoarekin geratu dira hauzoko polit horretako zahar, gazte eta haurrak. Zergatik? Dirurik ez dutelako izan, jaiak antolatzeko. Eritan meza bat

entzun zuten hauzoko hildakoen alde, eta hor bukatu ziren festak. Ea datorren urtean zori hobea izaten duzun!

★ San Isidro egunez, urteoro bezala, baserritarrak Guadalupen bildu ziren. Lehenbiziko, santuarekin prozesioa egin zuten eliza inguruan, gero meza nagusia, gero... indarrak ere behar direla eta haimeketako sendoa. Bertsolariak ere han ziren, Lizaso eta Lazkao-txiki, bazkal aurretik, bazkarian, eta ondoren. Errameria ederra, jende asko, umorea topean, ankarrin, irrintzi eta guzti. Festa ederra, baserritarrek egiten dakiten horietakoa!

★ Maiatzaren zehar zabaldu dira Sokoa Merkataldegiko bi edo hiru denda. Aipatu nahi duguna zera da: lehendabizi, erdarazko izena jarri zitela merkatu honi, eta gero euskaraz, eta euskara hutsean, gainera. Nahiago genuke herriko dendari guztiek jarriera bera hartuko balute beuren denda-izenak euskaratuz. Garaibatek hona aldatzen ari dira, egia da, izen batzu, baina oraindik asko geratzen dira erdaraz.

★ Maiatzaren 19an, Seberin Elizaguirre andeari omenaldi beroa eskaini zioten bere lagunak. Andre hau, hautzarotik arraina saltzen igaro du bizia, bai Hondarribian, bai Iruñen, eta, batez ere, Mendelun. Zenbat xardina, atun, antxua, eta mota guztitako arrainak ez ote dira irago Seberinaren eskutatik. Arrain freskua bategi, eta saltzeko grazia bestetik, horixe izan da Seberinaren saiakerua. Orain, deskantsua, nahiko lan egin du eta.

★ Maiatzaren 29tik ekainaren Tera Giza Anaitasunaren Topaketa Internazionala egingo da, Euskadin egiten den lehenbizikoa delarik. Hitzaldi, mahai inguru, kultur ekintza, etabar, izango dira lan zerrenda luze baten ardatz.

★ Istripuak ez dira, zorigaitoz, faltatzen. Maiatzaren ere izan ditugu batzuk. Bat, Guadalupetik behera zetorrela, hor joan zen kamioitik kanpora gaztez beteriko kotxe bat. Nahiko suete izan zuten, ordea, ez bait zen inor zauriturik gertatu.

Suerte txarragoa eduki zuen Amuteko bigururutzean madrildar gazte batek. Vespan zihola, kotxe batek eta motoak elkar jo zuten, eta madrildarra hil egin zen.

Korputz egunean, berriz, Faro inguruan gizon bat galdu zen itsasertzeko haiz artean. Farodienez, Usurbilgoa zen, ez gizon baten arropak agertu ziren, eskutitz batekin, "Usurbilgoa naiz, nere autoa aldamenean dago", idatzita utzirik. Harrez gero, Gurutze Gorriko eta D.Y.A.ko lagunak han dabilta leger eta itsaso, gizona aurkitu nahian.

Jose



AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

**JUAN ALKAIN
JAUREGI E.A.**
"SUPRA" eta "DE DIETRICH" en
banatzaile bakarra

Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA


EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

TEODORO HERNANDORENA GURE PERTSONAIA



Hamaika hondarribiarrek erakutsi dizkiote hortzak! Baina ez Teodoro Jaunen kontra zerbaiz zutelako edo... Denok dakigu nor den larogitazortzi urteko gizon hau. Gorputz iharra eta bizkorra. Bere bizitzan entzun eta ikusi dituenak, eta gertatu zaizkionak kontatzen hasten denean, hitzak barra-barra ateratzen zaizkio. Nola eman orriska honetan elkarriketa luze-luzean esan dizkigunak?

—“Hondarribia”-koak? Irakurri ditut, bai, orain arte ateratu dituzuen zenbakiak eta gustatu zaizkit.

—Hemen gatzoz ba —esan diogu—. Orain dela hiru hilabete hitz egin genuen telefonoz eta esan genizun elkarriketatar txo bat izan nahi genuela zurekin eta...

Eta “Arkaitz”-en, goiko pisuko lan edo idazgelan, badago han liburu eta paperekin, aritu gara blagan.

—Noiztik bizi zara Hondarribian?

—Orain dela hogeitazortzi urte etorri nintzen. Ez da dendora luzea larogitazortzi urteko bizitzan... Baina azkeneko hogeitazortzi urteak dira eta horiek denboraz gaztetakoak baino bi aldiz gehiago balio dute. Berrogei urte hortaz.

—Hainbeste urtetan kanpoan ibili ondoren etorri eta zergatik gelditu zinen hemen?

—Tokiatik, oso toki ederra delako. Eta jendea ere atsegina da. Zer nahi duzu ba?

—Hona etorri eta urtetan lanean ari-tu zara.

—Bai, dela hiru urte arte.

—Eta? Nolako hortzadura (dendatur-a) dute hondarribiarrek?

—Ona ez —erantzun digu irribarrez—. Txarra, Euskal Herri guztian beza la. Ez dut uste hemendik Atauna alderik dagoenik horretan.

—Zer dela-eta hori?

—Urak kare gutxi duelako edo... Zuk ikusten al duzu telebista? Han agertzen diren beltzek nolako hortzak dituzte? Zuri-zuriak. Baina haiek janari naturalak jaten dituzte. Guk berriz saltsak eta...

Teodoro Hernandezena Euskal Herrian gizon ezaguna da. Bai politikan, bai kulturen, bai pilotari artean. Parisen pasa zuten berak eta bere emazteak urte pila. Mugatik harantz jaio eta hazi zortzi seme-alabak.

PARISEN bertsolari txapelketa antolatzeak sentidurik ba ote du? Askorentzat ez, baina...

—Niri baietz iruditzen zitzaidan. Eta 1958an Parisen izan genituen Errexil, Basarri, Zubiko, Mattin, Xalbador... Inork espero ez zuen arrakasta izan zuten.

—Baina horretarako, bertsolariak bil-tzeko, ifar Euskal Herriko herri, herriska, mendi eta tabernetan ibili behar izan zenuen.

—Halaxe da. Honelakori galdetu “non da halako?” eta erantzuna: “ez dakit ba” edo “Irati basoan omen dabil”, “Atarratze-ko edo ez dakit nongo bistrotan (taber-netan) ikusi omen dute”. Eta ni bertsolari haren bila.

—Aizu, Hondarribian bertso zaletasunik ba al da?

—Ez. Olerkari onak bai izan dira Hon-

darrbian. Hor ditugu Bordari eta Satarka Baina bertsolariak ez. Hemen oso onak abesbatzak ditugu. Taldeka oso ondo kantatzen du jendeak, hori bai. Eskifaia goi-mailako taldea da.

Teodoro Hernandezena Zizurkil-en ez zen konturatzen euskalduna zenik, denak ziren-eta. Ikasketak egitera Gasteiza lehenengo eta gero Zaragozara. “Hauek gaztelera eta guk euskaraz. Hortaz, badugu guk bestelakoa den zerbaiz.”

Zaragozatik Bilbora, Euskalduna, abertzalea eta Bilbon militantea. ANV-ra joan eta haiekin lan egin Euskadiren alde? EGI aukera hobea horretarako? Hala iruditut zitzaien eta hantxe sartu zen. Eta Telesforo Monzon Herrizango edo Interiorreko ministro egin zutenean, Hernandezenak bete zuen haren postua eta Gipuzku Buru Batzarreko Lehendakaria izan zen.

—Bilbon nengoela “trasatlantiko bat-tetan mediku joateko aukera izan nuen. Eta ni toki berriak ezagutzeko beti prest! Han joan nintzen Ameriketara. Halako poziki!

—Zergatik aldegin zenuen Euskal Herri-tik?

—Zergatik aldegin nuen? Hemen gertatu izan banintz eta hamar bizi euki, hamar aldiz afusilatuko ninduten. Hau inon ez diot esan baina kontranorik gogorrenak obispoak nituen. Orduan euskaldun edo kataluniar izatea ez bail zuten barkatzen. Nik ulertu ezin nuen gauza da beste hau ere: langile guztiak, langile izateagatik, erlijioaren kontrakoak ziren apaiz-akoren uestez. Non zegoen apaiz eta obispo hauen kristautasuna? Nik, krisau xume honek, ezin nuen konprentitu.

Badu Teodoro Jaunak zer kontaturik. Badu Teodoro Jaunak hitz etorria.

“Arkaitz”-en, “Asturiaga” gainean bizi dira Teodoro eta Mercedes. Larogitabost urtekin dentista lanari utzi zion gizon honek ondo irabazia du “Arkaitz”-eko patkara.



TXUNTUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

MEI

Mertzeria

San Pedro kalean, 49 - Tel. 642071
HONDARRIBIA

GOGOETAK

BAZARA

Artistaren lana izan da aspaldidanik miresgarri egiten zaidana eta pentsakizun baikorrez betetzen nauena.

Atsegin zaidan edertari baten parean aurkitzen naizenean, nere izate osoz (gorputuez eta pentsamentuz), halako harreman batetan sartzen naiz edertari lan horrekin. Edertari lana unibertsala denez gero, obra eta ikuslearen arteko elkar adierazte oso batetara iristea gehiegi litzateke. Esan behar dena ordea da edertari lanean Edertasunaren ezagubidea eta irudia ematen digutela, Edertasunaren garamatzatela eta hurbiltzen gaituztela. Arrazoi osoz diote Hego aldeko lau gotziaiek beren Garizumako eskutitzan Estetika esperientziaren bidez Jangoikoa nor den inuitutu egiten dugula.

Eskultore, margolari, musikari, kantari, antzezleri, zinegile, olerkari eta hitz-lauzko idazleek munduaren ikuspegi berezia daukate. Beren obrak direla medio, gizadiaren eta izadiaren galderei erantzun auserak, ezin ederragoak baina baita herabetiak eta lotsatiak ere ematen dizkigute.

Artistaren lana isilpeka egin ohi da. Isiltasunean eta gaueko iluntasunean; hala dio Baudelaire poetak olerki anitzetan.

Gauean, jende arrunta lo zorroan dagoen bitartean, poeta, loaren etsaia denez, kezka betetzen da. Gau beltza zaio gustatzen, ilargi amandarean ikuspegi hasetzen da. Hotz-ikaruturik eta kandelatxiro batek ematen duen argiaz hasten da

lanean. Bere animari sakontasun batean murgiltzea eskatzen dio, barruan daukan bakardadearekin solastea. Goiz alba heldu arte poeta lanean aritu da. Lehenengo eguzki izpiekin batera kandelak aitu zaio. Jende arruntak nagia ateratzen dituenorako, poetak egin, erditu, bukatu du bere obra.

Esker mila artista zaren horri, bazare-lako, zure mundu horretan parte har dezakegula.

Guadalupe Artola

AIREPORTUKO ESPIOIA

‘Hau ez da ipuin bat.

Hau, niri gertatua da.

Franco-ren denboran zen. Hondarribitik kotxez irteerakoan aireportuaren aurrean gizon bat ikusten hasi nintzen. Amutetik honutuz, kamino baztarretik, joan-etorriko bidaiek egiten. Hor zebilen gizona bakarrik, tupa-tupa. Ez zen handia, ez zen lodia, eta traje txukunetz jantzia beti. Nik neuk, pasatzerakoan begiratzen nion, eta hark ere bai niri! ... Susmoak aidean eskuz harrapatzen ziren sasoiak zen, eta berehala antz eman nion polizia zela. Harrez gero, atzerantz isplitutik begiratzen nuen, eta konturatzeko nintzen haren begirada nire kotxera, plakari seguranskil, erantsita naramala... Tol, hi polizia haiz!

Hondarribiko komisariara (garai hartan Hondarribiak bazuen bere komisaria partikularra, paper zahar eta pix usaina nagusi) sarri joan behar izaten nuen, nire paperak gorra-behera, eta topaketa hau egin nuen gero, nire buruaganako ohar bera halebharrezkoa egin zen bixita bakoitzean; hala ere, ezer gertatzen ez zitzaidalako, nire errezelua ohituta, rutinak, jan zidan, eta kito.

Baina denbora pasa, eta aireportu

aurretik nindoan batean ikusi nituen polizia, hamar bat, edifizioaren inguruan apostatuta, zerbaiten zain, eta... gure gizona han!; kamino baztarrean, baina honera eta hara arretaz begira bezala, hantxe!... Nik neuk ondortik pasa nintzaionean ez nion begiratul, baina behin betiko nire kezkatetik irten nahi, eta Mendelun itzulia egin eta gero berriz Hondarribia bidean aireportura heldu nintzenean... han ikusten dut polizia inguratua zegoen edifiziorantz zihola eta honen alboan dagoen zoko batean ikutatzen!... Etxean nituen izkutuko paper batzu tokiz aldatu, eta hor noa berriz bide beretik, eta oraingo honetan, gizona aireportuko baztar hartatik begiraile!

Gizon honen planta ez zitzaidan burutik joaten.

Egun batean etxera igo zitzaizkidan hiru gizon, beste bi zain nituen haserre kotxera sarrarazi nindutenean, baina bostetik ez zen bat ere aireportuko espioraren antzeki zuenik. Muturrak beltzagoak ziren. Irungo kalabazoan gaua pasa eta hurrengo egunean bote ninduten zubitik at, eta ez bidean, ez zubian bertan ere, ez zen gure gizona agertu.

Hala ere, nerekin eman nuen bere planta buruan.

Pasatzen dira urteak, lau, aldatzen hasiak ziren, Franco-ren heriotzarekin, zerbait gure herriko arazoak; itzultzen naiz, eta kaputxinoetako konbentura noizean behin joaten nintzen gero, halako batean frontoi bidean dagoen mailartera igo eta han ikusten dut gizona, polizia, aulki baten gainera igota kajako-erloju haundiari kuerda ematen... Geratu nintzen begira, ikusi nuen lanean, torpeki; ‘egun on’, esan nion, eta gizona, poliziak, burua jira eta irripaz gozo batekin erantzuten dit: ‘bai zuri ere’... eta jarraitzen du bere ahaleginean, inoiz ikusi ez baninduz bezala...

Harrituta geratu nintzen, eta Porteriara jaitsi eta galdetu egin nion Anai Patxiri, ea gizon hori nor zen...

‘Al —erantzun zidan— hori gure etxeko fraide bat duzu...’

‘Bai —esan nion— baina aireportuko polisi artean ikusi izan dut neuk gizon hori.’

‘Ez da harritzekoa. Harantz egiten zuen eguneroko ibilaldia, eta barruan eserita ere egoten zen noizbehinka, denok ezagutzen zuten eta.’

Martin Ugaldé

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIAAXULAR
LIBURUDENDADidaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

I. ALKAIN

Mertzera - Ehungitza

Arrantzaile Auzoan, 13
HONDARRIBIA

KULTURA

Kultur-Berriak

★ Uztailerako prestatuta dauden atse-dendaliko ekintzak martxan daude, bada-kizue, zortzi urtetatik hamabi urte bitarte-ko edozein haurrak parte har dezake, horretarako Udaletxean izan eman be-har da Ekainak 3 baino lehen, hala ere, berandu zabalizatenentzat, epe hau luza-tuko omen da.

★ Udararako prestatzen ari diren ekin-tzen artean, bat aurreratuko dizuegu:

Udaberri jaia

Apirilak 19, larunbata. Euria, kaska-barra, hotza, ... Kasino Zaharrean Honderribiko Espresio Tailerrak dituen kalea-tan, goizeko bederatzietan, lagun franko bildu ginen: Espresio tailerrakoak, Zine-klubekoak, Angula Irratikoak, Institutuko Talde Ekologistakoak eta Txirinduluri El-karteak. Eguraldi kaxkarrari keinu egi-naz, UDABERRI JAIAko egitaraua aurre-ra eramatea erabaki genuen. Eta azken orduko moldaketak Hondarribian zehar anuntziatu genituen ere. Larunbatako arratsaldetik gaueraino Ama Guadalupe-ko Ikastetxeko zine-aretoan festa bizi izan zen:

- "Jaizkibeleko ohiazpena"ri buruzko hitzaldia, bailarako CARek emanda.
- "Antzerki Ikuskizuna", Espresio Taille-rrak prestatuta.
- "Errenazimientu Musikako Kontzer-tua" ALDABA taldearen karguan.
- Han sortutako giro onak igandeko eguzkia sortarazi zuen. Eta...
- Hondarribiko geografia globuen kolo-rez bete zen goizean, txirindazko mar-txak probokatuta.
- Egurdietik arratsaldeko 8ak arte, Ka-sino Zaharreko jardinetan FESTA bila-katu zen; haurrez josia eta nagusi franko ere.

Igandeko seirak aldera, ez zenuten zeruruntz zihon kolorezko globoa ikusi? Ez zenituzten "gora UdaBerria!" kantuak entzun? Kasino Zaharrean opa-tzen ari zen festatik sortzen ziren, Negua datorren urte arte zihon bitartean.

Eskifai Txikiaren albisteak

Azken egunotan bi kontzertu eman ditu eta biertan donostiar "Eskolania S. Ignacio"rekin batera. Lehenengo kontzertua Tolosako S. Francisco Elizan, jend-ez erabat bete zelarik. Hango txalo luze eta zaratzatsua.

Bigarrena, berriz, Donostian, Trini-dade Enparantzan, "Gastronomi Euskal Anaiariak" antolatuta zuen "Bolado Jai-al-dian" antolatuta zuen "Bolado Jai-al-dian". Bakoitzen emandalarien ondo-n, bi abesbatzarako batean burutu zuten kontzertua, jaialdia berriz bigarren zatia-ri hasiera emateko.

Orduan berri hasi zala... Jendearen



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDERRIBIA

Uztailaren 25ean, Santiago eguna, "Gaz-ta Jaia" ospatuko da Hondarribian. Gaz-tazaleak gustora ibiliko dira egun hor-retan.

★ Espresio Tailerrekoek Hondarribiko haur guztiei atekak iriki dizkielte Maia-zean. Maiatzaren 20tik aurrera talde ire-kiak honela antolatuta dituzte:

- O.H.O. ko 1. maila: Astearteetan arrats-aldeko 5,30etatik 7ak arte.
- O.H.O. ko 2. eta 3. mailak: Ostegune-tan arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.
- O.H.O. ko 4. eta 5. mailak: Asteazkene-tan arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.
- O.H.O. ko 6. 7. eta 8. maila: Ostiraletan arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.



Festan, Udaleko bi kontzejal zeuden. Berriz kontura joanak, zeren Udaletxeko kultur komisioko ez zuen Festa hau onar-tu. Bi aitazki zeukan komisioko talde na-gusiak eguraldi txarra egingo zuela eta prestatzeko denbora gutxi zegoela. Guk, ordea martxo hasieratik dena prest ge-neukan. Beste aldetik eguraldiarekin kont-sentsura iritzi ginen, ikusi zenez.

Horrela ezin dugula jarraitu, kultur komisioko guztiei esan nahi diegu. Behin eta berririo esango, gainera, bi puntutan gure ikusmena azpimarratuz:

- Kultur Komisia kultur aldetik aurre-ra jotzeko izan behar duela eta ez kultur taldeei moralak jenteko.
- Kultur Komisioko inefikazia gaingidu egin behar dela, Hondarribian kultur lan "positiboa" egin dadin.

aurrean egindako "bolado"ekin txokola-tetan busti eta nor bere aurrekoiei masail, sudur... margotzea. Noizbeinka goxoki euria egiten zuenaren zenbat zillipudi, arinaldi, edozeinen hanka tartetik sar-tuaz.

Eguna bukatzeko, denak itzuli ziren Irurera trenez, eta hemendik etxera oinez.

Eskifai Txikiaren helburua ez da mu-sika alorrean bakarra murrizten, haurren artean anaitasuna lortzea eta taldearen bidez, baita haurren nortasuna eta izaera aberastera ere. Hau lortzea, bai, saiatzen da bere zuzendari den Maite Oca, giro alaitsu honen bidez.

M. Jauregi

Bertara joan diren haurrek oso ikuspegi onez hitzegin digute saio hauetaz. Orain-dik ez bazarete joan, animu zaitzete le-henbait lehen, bertan gauza atseginak egiteko aukera bait duzue; lokatazakin ibili, ipuinak entzun eta asmatu, margotu, dantzatu eta abar.

★ San Juan gaua heldu zaigu eta ohitu-ra onak galduta gabe, Espresio Tailerrekoek ospakizun berezi bat antolatzen ari dira.

★ Eskifai eta Eskifai Txiki abesbatzak Ekainaren 15ean Araiara (Araba) doaz. Bertan hango abesbatzarekin harremanetan jarriko dira egun goxoa igarotzeko asmoz.

Maribel

UDABERRI JAIAK — hainbeste ekin-tza egin dugun ezkerre — herrian dagoen indar kreatzailea erakusten du, parte bat behintzat.

Guk armak ditugu, baina dirurik ez. Pazientzia eta inimiztara oso, baina in-fraegitura indezente bat. Biak lortu nahi ditugu, gure lanean arituz eta sinistuz.

Gure ekintzekin ados ez bazaude, arrazo zintzo eta argien bidez erakutsi izeaiguzue, mesedez. Dudak badituzue, dialogo baten bidez lagunduko dizuegu. Baina, Udaletxean "zer egin" ez badaki-zue, utz ezazue lekua, zer egin badakigu nok asko gara eta.

Denon arteko dialogo zintzo baten al-de izanik, Udaberri goxoa desideratzen di-zuegu.

Hondarribiko Espresio Tailerra

Paper berziklatua Hondarribian

BASATI Hondarribiko Institutoko eko-logi taldeak berriz ere ekin-tza berri bat bizi izan du: paper berziklatua egitea.

Zer da paper berziklatua?

Paper berziklatua paper zaharrez eta erabileriez eginko paper berri bat da. Modu honetan, egunoro zakarretara botatzen ditugun paper kilo izugarriak, nolabait ber-rrito aprobetxatuko lirateke.

Hala ere, gure esperientzia berria pa-per berziklatu artetanoki, edota eskuz, nola egiten den ikastea izan zen. Lan erraza, praktikoa eta, benetan, polita.

Norbaitek ikastea asmoak baldin baditu, institutotik igaro dadila. Gustora erakutsiko dizuegu gure paper berzikla-tua egiteko erabiltzen ditugun teknika eta materialak.

Besterik gabe, paper berziklatua era-bili nahi baduzu, belardendetan saltzen dela gogoratu dizugu.

BASATI, Hondarribiko Institutoko Ekologi Taldea

GABI

Loradenda

Al. Alonso kalean Tel. 642107
HONDERRIBIA

Maiatza, ahaztutzeko hobe!

"Maiatzak ekar dezaigula denetik gehiago, eta ea eguraldia ere hobetzen den", esanaz bukatzen genuen aurreko alea.

Baina maiatza ere nolabait igaro da, eta arrantza urri urriarekin joan da hilabete osoa. Aspaldi ezagutu den udaberri eskasena doa, eta maiatza honetan ez dago deus.

— Maiatzaren 6an, 16.000 kilo antxua sartu ziren, 370 pta./kilo batak beste. Aurreko egunean, Endaiko portuan 40.000/50.000 kilo sartu omen ziren. Maiatza hasita, eta antxuari ez hemen, arrantzaleek okerrera pentsatzen jarriak dira. Legazketariak, berriz, Rennesera joan dira, bukatzen ez diren zorigaitzoko juiziora.

— 7an, 3.000 kilo antxua. Endaian, diotenez, 80.000 kilo, sare kaltegarri atzemanak. Ez da giroa, endaiarrak itsasoa legetarrez akabaten, eta gu arrainik gabe.

— 8an, 2.000 kilo antxua. Ezer ez, huskaria, garai honetarako. Hemen antxurik ez, eta Aviles inguruan bai omen dago. Haraino joan behar ote dugu? Besterik ezean...

Legazketariak etorri ziren Rennesetik, eta gaur joan dira itsasora, eta zerbaitek etorri dute. Legatzak 1.025 pta. egin du; medianak, 804; peskadillak, 730; eta arroselak, 970 pta.

— Maiatzak 9. Atzo esaten genuena, alegia Asturiasez bazela antxua, egia da. Kilo 40/45 aleko neurrikoa, hemengoa baino txikiagoa, ba hemen 30/32koa ari gara atzematen. Jendea galdezka ari da ea Avileseko antxua hori, Euskal Herritik pasatu dena ote den, eta hemen ez ote den azaleratu urak hotzak daudelako, ala Endaia eta Donibaneko ontziak darabilten sare pelagikoengatik. Beste batzuk diote, antxua hori beti hantxe, Asturiaseko kostan dagoela.

Akoston esan ohi dan bezala: "arrantzaletan beti da aprendiz", beti ikasten, beti pentsatzen...

Dena dela, aurtengo urte hau arrunt arraroa da, ba Asturiaseko arrosela asko atzeman omen dute 15 egun duela, eta hemen berriz ez dugu arroseliki ikusi. Urtxo arko ziren han ez zutela atzematen bisurik sasoe honetan.

Antxuari buruz, Avileseko hori nondik demonio igaro da, Iparraldetik badator, eta gero Frantziako kostari atxikia etortzen bada Apirila erditik maiatzaren bukaera alderarte?

— Maiatzak 10 Endaiko arrastore batak "GURE BIZIA" ontzia aboratu zuen, kanalean, gau erdian. Inork, arrastorekoek ezik, ez zuen ikusi zein izan zen kolpea eman ziona, baina hurrengo egunean arrastoreko armadoreak berak deitu zuen berek izan zirela esanez.

— 14an, 8.000 kilo antxua, 351 pta., kontserbetarako. Avilesean asko omen zen, baina oso txikia, 50/70 ale kiloko, eta 90 pta. saldu zuten kiloa.

Legatza oso desberdin atzeman dute, batzuk gutxi, beste batzuk, asko. Salneurria: legatzak 1.050 pta., medianak 747; peskadillak, 627; arroselak, 820 pta.


— 15ean, 3.000 kilo antxua, 317,30 pta. Guztia fabriketarako.

— Maiatzak 19. Kantauriko flota, 250 barku, Bidasoko bahian egon ziren, eguerdiko 12tatik arratsaldeko 5ak arte. Endaiko armadoreen jarrera zita-

— 22an, hamairu barku bakarrik joan ziren antxuetara. Legazketariak, berriz, etxean geratu ziren. Izan ere, zertara joan? patruilleraren ametralladora aurrean itzultzeko?

— Maiatzak 23. Esteban Olaizola eta Juan Luis Tife Madrileria joan ziren, baina abisatu dute ezin dela ezer konpondu. Orduan, barra istea erabaki zen, eta barkuak bata besteraren ondoan amarra, eta Bidasoa itsi dute.

Maiatzak 24. Madrilen esan die datoren astean Parisen bilera egingo dela Hondarribiko arazo konpontzeko, eta Esteban ere han izango dela. Gainera,



lagatik egin nahi zuten protesta gogorra. Gauderidarte ez zen Endaiko portura arrastorekin sartu.

Gainera, beste erabaki bat ere hartu zen, alegia, erostenen batek Endaian edo Donibanen edo Baionan antxuariak erosten badu, Kantauriko kosta guztian ezin izango duela erosi antxuariak. Legatzak, 914 pta. egin zuen; medianak, 730; peskadillak, 602; eta arroselak, 705.

— Maiatzak 20. Egun honetan izan zen legazketariaren arazo frantzes patruillerarekin. Honek Baionara eramanez nahi zituen, legez kanpoko uretan arrantzan zebiltzela aitakiztat harturik. Gure legazketariak, berriz, bazutela lizentzia. Baina akoston esan dugu lehen ere: **egiak ez duela balio, hemen indarrak balio duela, itxura denez, nahiz eta ez luke hala behar.** Indarra patruillerak zuen, eta gure arrantzaliak etxera etorri behar izan zuten.

— 21ean, berriro ere problema edukitu zuten herriko ontziek Frantziako patruillerarekin, eta berriro ere etxera etorri ziren, hurrengo egunean etxean geldituko zirela erabakiz, ba horrela ezin dela itsasoan ibili, beti pertsegintza; nahiz eta lizentzia izan ibili. Benetan, ez dago deretorik!

26an joan daitezkeela berriro Eskotara eta ez zaiela ezer gertatuko, garrantia ematen dutela frantzesek utziko dutela arrantzan.

Orduan, barra irekitzen da eguerdian.

— 26an, flota antxuetara ateratzen zen, baina ezer gabe itzuli. Bestalde, Endaiko arrastorek errolak entregatu dituzte, borta egiteko. Badirudi Frantziak CEE osoak baino indar gehiago duela arrantza kontuan.

— Maiatzak 28. 8.000 kilo txitxarro txikia ekarri dute, eta **8 pezetan kiloa** saldu iniriterako. Prezio negargarria! Sikiera, lehenengo egunean, 32 pezetan saldu zuten Portugalerako. Gaur, ezta hori ere!

Bihar jai da, Korputz eguna. Antxualak joan daitezke itsasora, nahi badute, baina ez ez dagoenez, gutxienez gastuak ebitatzeko, etxean gelditzea hobe.

Legazketariak ere amarratuta daude, Madrilen esandakoak gezur bihurtu direlako: ez dago garrantiarik, ezta Parisko bilera ere ez da egin.

Noiz arte honela? noiz arte desanparatuak?

Andres

BURBUXAK

Artileak pisura
Neurriko elastikoak

Santiago kalean HONDARRIBIA

LUISA

Arrandegia

Zuloaga kalean Tel. 641757
HONDARRIBIA

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA

GAZTERIA

Amuteko atsedenaldi taldeak

Bi azkeneko urte hauetan, gure auzoan atsedenaldi talde jator batzuek abiatu dira. Talde hoiak antolatuta da bultzatzen egiteko konpromisoa hartu zuten gazte batzuk. Geroztik, hauetako haur eta gazteko guztiak badute aukera talde hoiaren bidez beren heziketa osatzeko.

BEGIRALEAK:

1.— Haur denak badute atsegin zaioren aukera egiteko era.

2.— Gaiak asko dira: dantzak, gitarrak, flauta, plastika, antzerki, jolasak, eta abar.

3.— Astegunetan, talde txikiak, baita kotoiak bere aukera eta bere maisua du. Eta, larunbat eta igandetan, talde handiak ere bai.

HELBURUAK:

Lehen haurrak bildu, kaletik "salbatu", musika, antzerki eta beste arteetarako gogoia sortu eta ezi.

Kaputxinoen arteetan egin arren ikastaroak, konpromisorik ez dugu, ez eliza mailan, eta ez politika aldetik. Askatasun osoan, gaztekoen alde ari gara lana egiten.

FRUITUAK:

1.— Haurrak eta gaztekoak pozik dabilta eta gustura datur ikastarora, bai igandetan eta bai edozein ordutan.

2.— Dantza taldeak, gitarra eta flauta taldeak ere, parte hartu dute jaialdi batzuetan, eta poliki poliki hobegotzen ari dira.

Gazte batzuk

Gazterien iraultza

Zer nahi ote dute gazteak? Gazteriek zoriontsu izan nahi du edozein gizaseme, mutil, neska, zahar, handi edo tipik bezalaxe.

Gaztaroan sekulako aldaketak gertatzen dira, gorputza "loratzen" da, bere osotasunean agertzen zaigu, gorputzak berak eskatzen dio gazteari erabiltzea, frogatzea, gozatzea. Bertain gerta daiteke buruarekin, adimenarekin, zenbait ikuspuntu desberdin sortzen da...

Horrela buru-adimen-gorputzaren egoera berezi horri gaztaroa deritzaio. Bizitzaren lore eta sumendia dugu gaztaroa.

Gazteak gozatu nahi du, bertan dagoela adierazi nahi du, ez dela pampina bat, ez eta txingurri bat gehiago ere. Bizi-

tzan sartu nahiduz, zerbaitez izan. (Ni gaztea naizue, bainan nire uestez gizonaren proiektu, ilusio eta itxaropen handienak gatzaroen ematen dira).

Gazteak giroa aldatu nahi du, dena hobetu.

Bainan zein da erantzuna? "Ez, ez zaude prest, gauzak ez dira horrela, georoago (gaztearen "sua" itzaltzen noski) gauzak desberdin ikusiko dituzu".

★ ★ ★

Maiz gazteriek ez du hau onartzen, bainan kontra jartzen direnentzat badu gizarteak bere erantzuna: publikitatea, erreformatarioak, gartzelak (ezin dugu botorik eman bainan gartzelari bai egon gaitzek), alkohola, tabernak, drogak eta kokojaleak. Bat dela edo bestea dela, gaztea isil erazi behintzat. (Hor dugu 60ko hamarkadan sortutako punkiekin gertatu dena, denaren kontra agertu ziren beren bizimodu eta janzkera bereziarekin eta gaur egun arrotza horiek, punkien arma bat nolabait, edozein denda edo boutique farnatuzen aurki daitezke).

"Gaztaroa pauso bat besterik ez da, erosi, erabili eta saldu daitekeen beste pauso bat, jaiotza, bizitza eta heriotza beraren diren bezala."

"Zure nortasun baten bila zoaz, nortasun bat eraki behar duzu, nortasun baten beharra duzu, gaztel, eta nortasun hau lardu."

Bainan nortasun honek sistemaren barnean (hau da, azpian) egon behar du, sistemaren barnean osatu behar duzu, ikasi, prestatu, heldu; dena gero gazte izango ez zarenerako, zure sumendia itzaltzen denarako, bat gehiago, txingurri bat bihurtzen zarenerako. Sistema zeure barnean izango duzu eta ez duzu ezer gehiago ulertuko.

★ ★ ★

Gazteak bi posibilitate ditu zaharrak menderatzen duten planeta honetan: moldatu hala jokoaz kanpo geratu.

Gazterien erorkizuna gazterien esku utzi beharko den. Gazteok ahoatsa behar dugu, ahots indartsu eta garbi bat, diru eta zero grisetan zehar igaro daitekeen ahoatsa.

Gazteriek elkartu egin behar du, in-

darra edukitzeko eta bere nortasuna defenditzeko, biharko mundua prestatzeko eta aintzinarako tabu asko kentzeko.

Lehen pausoak zailak izango dira eta, esan dudan bezala, zenbaitzuek erabiliko dute edo gutxienez saiatuko dira inder berri hau erabiltzen beren onerako. Batzuk ez dituzte gauzak argi ikusten, bainan gazteriek zenbait ideia berri guztiz interesgarriak izaten ditu. (Hor ditugu ekologistak, antimilitaristak).

Nik ez dut dena zahartzat hartu nahi eta bota, bakarrik gazteentzako toki bat behar dela diot; inder handi bat dela eta hori ezin dela liburu batzuen atzean utzi...

Inobanedoa

Udarako zenbait kontseilu

Uda dator. Egunkak luzatzen hasiak dira. Berotzen du. Gure larrua koloreak hartzen ari da. Politagoa aurkitzen dugu geure burua, modako jantzi arin horiekin... Baina, kontuz eguzkiarekin! Oso osasungarria eta atsegina izan daiteke, baina ez nolanahi hartuz.

Hasieran piskanaka hartu behar da, ez erretzeko. Gainera, poliki hartuz gero, kolore politagoa lortzen da.

Lehenengo alditan, komenigarria da kremaren batez igurtzitzea, azala babesteko. Gero, etxeratu ordurako, dutxa eder bat hartu, eta ondoren krema hidratantea ematea derrogorrezkoa da, larruak ura galtzen bait du eguzkiarekin.

Itasoko ura oso ona da, bai azalarentzat eta bai ilearentzat, mineral asko daukalako, baina gero itsasoko kresala edo salitrea ongi kendu behar da ur gezaz.

Ilea permanenteaz edo kizkurtua baldin baduzu, asteoro garbitu ondoren, krema on bat eman behar diozu, eta eguzkitan denbora asko baldin bazaude, komenigarria da burua estaltzea.

Elkaddurari (alimentazioari) dagokionez, ez ahanitu ura ugari edan behar dela udan. Azanarioek asko laguntzen omen dio azalaren pigmentazioari.

Limoiak, berriz, kontrakoak omen dira, baina osasungarriak, bastealde.

Junkal

Herri Demografiaren goitibeherak

Maiatzako heriotzak

18an: JUAN JOSE Goikotxea Emazabel. 29 urtekoa - Hondarribiarra. Ubilla, 4.

19an: FELIX Oyarzabal Camino. 67 urtekoa - Hondarribiarra. Jabier Ugarte, 2.

Maiatzako jaiotzak

9an: ION Sagarazu Lekuona. Jose Javier eta M.^a Concepcionen semea. Soroetaberri, 13-19.

20an: GOTZANE Romarateazabala Alza. Fco. Javier eta M.^a Carmenen alaba. Kale Nagusia, 6-39.

21ean: IMANOL Gonzalez Uranga. Ignacio eta M.^a Milagrosen semea. Guadalupeko Ama, 4-39.

23an: ALEX Espinosa Towe. Jose Andres eta Helen Elsieen semea. Amato-enea etxea.

Maiatzako ezkontzak

Herriko semeak

13an: LUIS Sierra Iglesias - 22 urtekoa - Iruren bizi dena. M.^a ESTHER Etxebeste Lazkanotegi - 22 urtekoa - Hondarribiarra.

24an: JESUS FERNANDO Forcen Calvo - 28 urtekoa - Zaragozan bizi dena. ANTONINA Amorrotu Emazabel - 30 urtekoa - Hondarribiarra.

Telefono lagungarriak

Aireportua	642240
Babes zibila	451946
DYA	464622
Ereptiduen informazioa	270581
Gizarte segurantzaz	
(Itxas Etxea)	641965
Gurutze Gorria	272222
Igeldoko meteorologia	210759
Itasoko Gurutze Gorria	421440
Renfe	616708
Suhiltzaileak	622000
Udalzaingoa eta Udala	642340

Arrauna

Uda darta, eta orain erraza da. Baina negu gorria denean... el, orduan zer?, eta da hain erraza lagunak esaten dizuenen: "hi, gozema!k, hartzak pataregia eta batelera..." bai zera, ni behintzat eniak, nahiago dait itxian gelditu edo portuan buelta pare bat eman.

Hala ere, uda eta negu, hor ditugu **ARRAUN ELKARTEKO mutil** eta **neska** horiek, jo eta ke arraunen, ikaragarriko sasoiari, petxua zabal zabal, eta osasuna, hauek bai osasuna, eta ez lurruekoa.

Joan den hilean Soutoun-en egonak dira (Frantzia), hor Zubimuxuko malda hasi baino lehenago ezkerre hartu, mugara eta handik gora kilometro pila eginda.

Han izanak dira Helduak (senior) 8 eta 4 laguneko "utrixarekin" (outrigger), uste dut horrela jartzen dela, eta lehen geldituko. Gazteen artean, patroirik gabeko 2koarekin eta 4koan patroiarekin, bigarren eta bosgarren. Eta gaztekoen artean (kadeteak) 8koan, bigarren.

Gero Donostian ere izan dira patroidun 2koan eta banakakoan (skif) eta biatan irabazi zuten; eta 4 "sculler", arraunlari bakoitzak bi arraun daramalarik, bigarren geratu ziren.

Laster Euskadiko eta eskualde edo probintziako txapelketak datoz. Hantxe ikusi ahal izango ditugu tipo jator hauek herriko koloreak aurrera eramane nahirik.

Macon eta Vichi (Frantzia). Lehen esandako bide beretik joanda, badakizue: "Zubimuxuko malda baino lehenago ezkerre eta abar", norbaitek ez baldin badaki galdetu Mendeluko siseruari. Hantxe izango ditugu Ponce eta Olaskoaga gazte-koak eta behin baino gehiagotan txapel- duna ateratako Altuna. Eutsi eta gogor, mutilak!

Beste aldetik tosta gogorra edo banko fijoako estropadak hasiak dira. Aurtien eskualdeko ligalari trainerila bat atera da Hondarribiatik; baina ez pentsa bigarrena ateratzeko jenderik ez zegoenik. Hamahiru lagun dabilta jo eta ke, baina ardura-

dunek hobe dela bat atera eta mutilak al darten joatea pentsatu dute.

Hori helduekin; baina gazteek ere parte hartzen ari dira ligalari. Hauek Sant Lazabalen ardurapean dabilta eta lehenengoak Antonio Oliden eta Fermin Altunaren begiradapean.

Orain arte ez dabilta lehen-lehenengoan artean, baina itxaropena bai, haundia aurrera joateko.

Dena dela interesgarriena ibiltzea da, txapelak lortzea ez da hain erreza eta

Hala ere, eta txapela horiek lortu ahal izateko, Hondarribiko Arraun Elkarteak Udako arraun ikastaroa antolatzen ari da. Ikastaro hau hamar urtertik gorako gazteentzat eratu da eta nahi duenak elkar-tera jo beza argi gehiago izateko.

Hala, mutilak, eta neskak ere, anima zaitzete eta arraunen ikastera hurbildu, kirola ez bait da txarra.

Toleta

Arraunlari gazteenak

Hamaika eta hemezortzi urte bitarteko hainbat arraunlari, neska eta mutil, hor dabilela eta guk gaztetxo guzti horien izenak jarri nahi genuke. Baina, lehenbizi Santi Larzabal eta Miguel Tobar-en izenak aipatu behar, hauek baitira zuzen- tzaile bikainak. Hauen menpean ari dira Urbano Emazabel, Igor Alkain, Jabier Gonzalez, Ion Gonzalez, Mikel Gutierrez Iñigo Larzabal, Igor Zuzaya, Felix Zubilla- ga, Iosu Zuzaya, Manex Martinez, Pablo Amunarriz, Aitor Iza, Beñara Sistiaga, Jabier Enparan, Aitor Enparan, Izaskun Elizazu, Blanka Subijana, Elisabet Soron- do, Iolanda Uranga, eta abar, eta abar.

Jubeniletan, berriz, J. M. Salaberria, Mikel Susperregi, Mikel Larrarte, Grego- rio Duinat, Jose Aitor Sagazazu, Iñazio Agirre, F. J. Lapitz, Antonio Emazabel eta J. Ramon Portu.

Iñaki



Zikloturisten txokoa

Herriko txirrindulariak ere hortxe jarraitzen dute, pedalei jira eta bira, nekaz- ezinik.

- Ekainerako **TXIRRINDULARI ELKAR- TEAK** antolatutako duen programa, honela izango da: 1ean, Iruritarra (95 km.); 8an, Hondarribia-Gasteiz anaitasun- jaia; 15ean, Hondarribiko Klasika eta Laudio (Arabian) Pedal jaia; 22an, Itur- renera (92 km.); eta 29an, Doneztebe- ko Oizera (90 km.).
- **TXIKIEN TXIRRINDULARI ELKAR- TEAK**, bere aldetik, itereak ditu ekai- nerako: 1ean, Pasaiaiko Farolera (40 km.); 22an, Donostiako Ondarretako hondartzara (48 km.); eta 29an, Igan- tzira (55 km.).
- Bestalde, ekainaren 15erako, **HON- DARRIBIKO TXIRRINDULARI ELKAR- TEAK** antolatuta, **IBIDASOAKO ZIKLOTURISTA BIRA** egingo da, 172 km. korrituz. Hondarribia, Donibane- Lohitzune, Senpere, Kanbo, Louhosa, Baigorri, Izpegi, Elizondo, Irurita, Ziga, Mugaire, Sunbilla, Bera, Irun eta Hondarribian barrena. Itteera kontrola, goizeko 7etan Kai-Za-

harrean jarriko da, Mugairen bazkaria, eta helmugako kontrola arratsaldeko 7etan



- Txirrindulariak indarrean dabiltzanez, Juan Ignazio Gonzalez, Patxi Etzaide eta Pako Rodrigo, uztailaren 5ean "La Marmotte - Alpe d'Huez" probara joateko azkenengo entrenamenduak egiten ari dira. Proba hau oso gogorra. Col de la Croix de fer (2.068 m.), Col du Télégraphe (1.570 m.), Col de Galibier (2.645 m.) eta Alpe d'Huez (1.860 m.) igo behar dira, 173 kilome- troetako etapa beldurgarria. Hala ere, hiru hondarribiarrek han punta puntan egongo dira.
- **MARLAXKAKO ZIKLOTURISTAK**, baita ere, jaiero irituten dute, ankak as- tintzera, eta gorputzeko erdiak garbi- tzera. Ekaineraren 8an, Arantzazua joan- go dira; 15ean, Orriara; 22an, Ain- hoara eta 29an, Zarautza.

Mendira

Ikastolatik egiten diren itenalditak azkena ekainean izango da, aurtengo ikasturtean. Hilaren 15ean, Nafarroako Belagurra joango dira, haur eta guraso- eta honela emango zaio amaia kurtsoko egitarau osoari.

Juanjo eta Erramun

GAZTEAK GARA

106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino askoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.






Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta erronka berriak daukagu itxoiten guztiok.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoa eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbitzuzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

Kai berria

Notizia dugu kai berria oraingo honean, eztabaida izugarria sortu bait da kai berriaren etorkizunari buruz. Kai haunditu? Dagoen bezala utzi?

Itxura denez, batzuentzat turismoa da garrantzitsua, eta orduan hondartza eta Klub Nautikoa dira lehenbizi zaundu behar direnak. Kai zabaltzen bada, hondartzarako eta kanontzat txarra izango da. Dagoela, beraz, kai dagoen bezala!

Beste askorentzat, berriz, lehenbizi lana da, eta Hondarrribian arrantza izan da eta da lanbide zaharrena. Zaindu egin behar da, beraz, arrantza ahalik eta gehien.

Gaurko ontziak ez dira lehenagokoak, leku gehiago behar dute, kai hebea, instalazio erosoagoak, lanerako molla berriak... Kai berria zabaldu egin behar da, beraz.

Baina, egingo al da? Batzuk esaten dute piszinak munizipala behar duela izan, beste batzuk berriz berdin dela munizipala ala partikularra, egin eta kitto. Al, baina nola egin partikularrek lur munizipalean? **Oi, baina zergatik ez, udalak egiten ez badu?**

Honela dabil gaia, eztabaida dextean. Ez dakiguna da, nola bukatuko den.

Hezkuntza Kontseilua

Kontzejal eta eskoletako ordezkariak osatzen dute kontseilua. Kontseilu honen barruan ere eztabadak omen dira. Harritzekoal, badirudi gai bat ukitu ezkeko, ez eta bai, ez eta bai, etengabeko eztabaida sortzen dela berehala. Ba, halaxe da kontseilu honek ere euskararen arazoa plaza-

- Kanposantu ondoko poligonoko proiektua onartzea, etxeak egiteko.
- Alde Zaharra edo Kasko zaharrari buruz azterketa eta kartografia egitea, alde hartako etxe eta kaleetako dokumentu sakon bat edukitzeko. **Ea gero zer egiten den!**
- Aginagalde eskolako hesi apurtua konpondu ala ez konpondu, erabaki gabe utzea, hurrengo baterako.
- Foru Aldundia edo Diputazioaren dirulaguntza egiten diren obretarako, 437.979.508 peztako proiektuen aurrekontua onartzea. Gai honetan **eztabaida gogorrak** jaio ziren zinegotzien artean, ba, batzuk esan zuten, egun bakar bateko epea eduki zuten gaia ikusteko, udalak paperak berandu banatu zituelako, beste batzuk ziotenez, halako presaka egindako planak ezin zirela ongi aztertu korrika eta presaka. Hala ere, onartu zen oso osorik.
- Uren erreiziboak ere aztertu ziren, A.N.S.A.k gehiago kobratu digulako.

Patxiluakeko astilleroa

1885ko urtarrilaren 24an, **Hondarribiko hondartzan astillero bat egin zezaten**, Senen eta Jose Maria Aseginolazari baimena eman zitzaion, eta horretarako behar zen orube edo terrenoa okupatzeko ere bai.

Astilleroa egiteko baimena eman zen, baina ez zen astillerorik egin. Bestalde, terreno horretan bi etxe jaso ziren.

Gauzak hala izanik, 1885an Senen Aseginolazari eman zitzaion eremua okupatzeko baimena deuseztu eta indarrak gabe utzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak 1986-V-12an, eta hala adierazi dio Hondarribiko udalari.


Honela, herriko udalak, astillerorak zen eremu hori herriari bihurtzeko, 1981-X-26an eta 1982-XI-15ean hartu tako erabakiak aurrera doaz, eta laiste enparantza edo kaleren bat egingo da bertan.

Plenoak

Maiatzean zazpi pleno egin ditu Udalak. Zenbat, eta? Baina kontu egizu, bost pleno egun batean egin zirela (!!!?) eta beste biak beste egun batean. **Horrela edozeinek!**

Maiatzaren 14an izan ziren 5 plenoak, bata bukatu ahal, bestea hasi. Hona hemen erabakirik interesgarrienak:

- Puntaleko urbanizazioari jarraitzeko, Eusko Jaurlaritzari 55.576.035 peztako mailuago edo prestamu interesik gabekoa eskatzea, horren truke hipoteka-bermea edo garrantia eskainiz.



Hona hemen herrian pil-pil dabilen arazoa. Arrantzaleen Kofradia, Udala eta interes partikularrak daude saltsan sartuak. Kofradiak arrantzaleen etorkizunari begiratu behar diolako. Udalak ere bai, herritarren zati garrantzitsua eta haundia delako. Partikularrek ere turismoaren alde ona ikusten dutelako.

Eztabaida konpontzen ez den artean, Eusko Jaurlaritzari zai dago, ea herrian zer erabakitzen den. Gasteizen bilerak egin da, Kofradia, zenbait kontzejal eta Eusko Jaurlaritzako bi lagunaren artean, baina ez ziren ezertan geratu. Noski, herrian konpontzen ez badirak!...

Igerilekua edo piszina

Aspaldidanik dator herrian piszina baten egarria. Firma mordoak ere bildu zen. Baina alferrik!

Udalak ez duela egiten, eta lagun batzuk proposamena aurkeztu diote Udalari, orube edo terreno munizipalean piszina bat eraikitzeko. Non egin daitekeen piszina hau? Ba, Sokoako merkataldegi ondoan, edo hondartzatik aldemenean.

"HONDARRIBIA" aldizkaria idatzi nahi duenak, eta gure berri jakin duenak, **Udaletxera** jo dezake, **64.23.40 telefonoa**, edo bertara joan, eta **Euskaraz Azpibatzordearen** galdara egin. **Baita Koroaren Udaletxeko posta kutxara (apartado de correos), eta bertara bidali nahi duzuen.**